

Goierriarra

309. zenbakia 2006ko urriak 20




Xabier Arakama

TXALAPARTA BERRITZAILEA

DR. JOSE
GISASOLA

3998 Elkargokidea

OSTEOPATIAN MEDIKUA



Andramari, 13 Ezk. Solairu-arte / 20200 Beasain / T 629 45 20 53
Urbietia, 39 - 1º Ezk / 20006 Donostia / T 943 471 885

BIZKARREKO MINAREN TRATAMENDU NATURALA

Lumbalgia, Hernia Diskala, Ziatika, Migraina, Zefalea, Bertigoa, Artrosia, Buruhezur-aurpegiko mina, ATM



Medikuntza eta zirugian lizentziatuak:

I. Fdez Ornaburu Dra.

(Medikuntza estetikoan masterra)

A. Ramirez Baigorri Dra.

Kursal
ZENTRO MEDIKUA
www.kursal.es

943 88 22 51

Garmendia Otaola, 7 - behea


BEASAIN

- GANTZA KIRURGIARIK GABE KENTZEN DUGU ultrasoinuen bidez

NOBEDADEA

ULTRASHAPE CONTOUR I Metodoa

- laser depilazioa
- aurpegiaren gaztetzea
- peeling-ak, betetzeak
- toxina botulinikoa: zimurrak
- aurpegi eta gorputzeko mesoterapia
- gizentasuna, zelulitita, masajeak
- azal azpiko terapia: LPG



R.P.S.:32/04

berogas
langile elkarte, s.a.l.

Berokuntza, gasa, aire girotua, iturgintza.
Instalazio industrialak eta etxeak, eguzki-energia.
Sukaldeko eta bainuko altzariak, etxetresna elektrikoak.
Aluminiozko eta Poliuretanozko leihoak .

Denda: Pº San Francisco, 10 – 20400 Tolosa
Tel.: 943 653 307
Tel. / Fax: 943 650 520
E-mail: muebles@berogas.com

Bulegoak: Polg. Usabal, pab. 11A – 20400 Tolosa
Tels.: 943 672 620 / 943 675 977
Fax: 943 675 421
E-mail: berogas@berogas.com

www.berogas.com



POLIURETANOZKO LEIHOAK



BERTSOTAN

Usoak



Ainhoa Mujika Mendia

Iparraldetik hegoaldera
orpoz-orpo, buruz-buru,
helmugaraino heltzea dute
uso guztiek helburu,
baina bidean zenbat barrera,
zenbat gako, zenbat gudu!
Bizigabeak bezala gogoz
tiroka hiltzen ditugu.
Bizitza hontaz konsziente garen
jada ez nago seguru.

Udazkenean milaka uso
hegaka doaz astiro.
Apuntatua ez du axola
tiro bat edo bi tiro,
bi biren aurka balitz bezala
hordago eta enbido,
nahiz eta egon armak lurrean
uzteko mila motibo
tiroka lasai jarraitzen dugu
pentsatu gabe berriro.

Doinua: Zure eskaerak egia esan

Goierritarra

HAMABOSTEKARIA

Argitaratzailea:

Goierriko Hedabideak S.L.

Urbalde plaza, 7 - behe

BEASAIN

Posta elektronikoa:

goierritarra@goierrikohitza.info

Telefonoak:

Erredakzioa: 943 16 00 56

943 88 96 12

Publizitatea: 647 319 757

Harpidetza: 902 820 201

Zuzendaria: Loinaz Agirre

Maketazioa: Mikel Albisu

Inprimaketa: Gertu (Zubillaga
9. Oñati)

ISSN: 1132-0907

Lege gordailua: SS-926/89

Frankeo kontzertatua: 37/76

**Goierritarrak ez du bere
gain hartzen derrigorrez,
aldizkarian adierazitako esanen
eta iritzien erantzukizunik.**

Goierritarra

diruz laguntzen duten
erakundeak:

Itsasondoko udala



Gipuzkoako Foru Aldundia

AURKIBIDEA

4. Iritzia: Axular Barandiaran.

5. Ingurugiro txokoa: Animalia
barestuen salerosketa.

6. Kate motzean: Gorka Berasategi.

7. Elkarrizketa: Daniela Mihoci:
errumaniarren bitartekaria.

10. Erreportajea: Mikel Aiestaran
kazetaria, Ekialde Hurbileko
berriemailea.

14. Elkarrizketa: Xabier Arakama:
trikitalari txalapartaria.

18. Elkarrizketa: Jokin Telleria:
"Pinturatik bizitzea loteritxoa da".

22. Non zer.

24. Iragarki laburrak.

26. Argazki zaharra.

12



16



19



EUSKO JAURLARITZA



GOBIERNO VASCO

KULTURA SAILA

Hizkuntza Politikarako Sailburuordetza

DEPARTAMENTO DE CULTURA

Viceconsejería de Política Lingüística



Axular Barandiaran

*Egunoa da
Euskal
Herriaren alde
egiteko unea,
indar
herritarrek
bildu eta
autodetermina-
zioaren aldeko
uholde
herritarra
antolatzeko
garaian gaude.*

Euskal Herriak autodeterminazioa

Azken bi mendeetan lau matxinada armatu izan dituen gatazka politiko-errotik konpontzeko aukera parez pare daukagu, hamarkadetako borrokaren ondorioz baldintza sozial eta politikoak sortu ondoren. Gatazka behin betiko gainditzeko izan zedin aurkeztu zuen ezker abertzaleak Anoetan "Orain Herria Orain Bakea", emaitza oparoak izan dituen proposamena.

Euskal jendartean dagoen elkarriketa eta negoziazioetarako nahiak bat egin du Anoetako bi mahaien metodologiarekin eta baita gure herriak azken hitza behar duela onartzearekin ere. Ordu tik hona, bi mahaiak martxan jartze alde-ra pausuak eman direla nabarmena da.

ETA erakundeak prozesua bultzatzeko asmoz su-eten iraunkor eta orokorra eman zuenetik argi ilunak eman dira herri honetan.

Alde positiboei dagokionez, ezker abertzalearen inizatiba politikoak prozesu demokratiko baterako ateak zabaltu ditu. Prozesu honek herritarren atxekimendu eta bultzada osoa jaso du, mobilizazio eta ekimen ezberdinetan ikusi den modura.

Ireki den eztabaida politikoak Euskal Herri osoan izan du isla, herri osoan hedatu da negoziaketa politikoaren ezinbestekotasuna eta agerian gelditu dira negoziaketaren bitartez askatu beharreko korapiloak: autodeterminazioa eta lurraldetasuna.

Madrilgo gobernuburu batek lehen aldiz adierazi du euskal herritarren borondatea errespetatuko duela, baina adierazpen hauek erabat kontrajarriak dira 6 hilabete hauetan erakutsi dutenarekin: PSOEk errepresioaren aldeko apostu sendoa egin du eta guda estrategia hau erabili du prozesua baldintzatze-ko.

Bestalde, eztabaida politikoa atzeratu, erritmoa kontrolatu eta mamia desitxuratzen saiatu da alderdi sozialista


PNVren laguntza osoarekin, prozesuan funtsezko urratsak ematea ekidinez.

Ondorioz, nabarmena da prozesuak larritasunezko egoera bizi duela, horrela zioen abuztuan ezker abertzaleak eta orain ia eragile guztiek esaten dute. Egun, gatazkaren konponbidea adostuko duen alderdien mahaia osatzeko dago, PSOEren txantaia eta eraso errepresiboak etengabeak dira ezker abertzalearen jardura politikoaren aurka eta espetze politika ankerra egunez egun areagotzen da: honek guztiak prozesu demokratikoa blokeo egoerara eraman du.

Ezker abertzaleak prozesua blokeo honetatik ateratzeko bokazio osoa du eta horretan jarri ditu bere indar guztiak, nahiz eta jakin badakien horretarako beste batzuen borondatea ere behar dela. Euskal Herriaren nazio aitortza, autodeterminazioa eta lurraldetasuna ardatz eta helburu izango dituen prozesuaren alde ari gara; hau da eragile nagusien artean askatu beharreko funtsezko korapiloa eta gatazkaren muina, erabakitze-ko eskubidea, alegia. Atzerapen eta aitzakia gehiagorik gabe korapiloa askatzea dagokie eragile politiko eta sozialei, behin betiko gatazkaren muinari helduz eta konponbiderako akordio demokratiko eta justiziazkoa adostuz: orain da garaia.

Egunoa da Euskal Herriaren alde egiteko unea, indar herritarrek bildu eta autodeterminazioaren aldeko uholde herritarra antolatze-ko garaian gaude, hau da konponbidearen alde herritarrok egin dezakegun ekarpenik eraginkorrena: prozesuaren oinarrien aldeko eta erabakitze-ko eskubidearen aldeko dinamikak sustatu eta bultzatzea.

Bukatzeko, Goierriko gizon eta emakume guztiak autodeterminazioaren aldeko dinamika orotan parte hartzera gonbidatzen ditugu, une historiko honetan erabakitze-ko eskubidea lortzea baita gako nagusia: Euskal Herriak Autodeterminazioa.



Mendizabal, C.B.

ITURGINTZA - BEROGINTZA

Tel.: 609 614 552 (Iñaki)

659 644 221 (Xabi)

Txindoki, 23 - 4. ezk.

ZALDIBIA

Animalia babestuen salerosketa

Animalia eta landare babestuen salerosketa legez kanpoko hirugarren jarduera errentagarriena da, narko-trafficaren eta arma-salmentaren ondoren. Jarduera horrek bi bilioi pezetatik gorako irabaziak ematen ditu urtean eta fauna eta flora-rako 700 espezie betiko galtzeko arriskuan jartzen ditu. Urtebetean 50.000 primate, 140.000 bolizko letagin, 350 milioi arrain tropikal eta 4 milioi kaktus saldu ohi dira legez kanpo, Naturarentzako Mundu Fondoak (WWF)-Adenak- emandako datuen arabera. Gainera, salerosketa hori mundu osoko bioaniztasunaren galera kezagarria eragiten duten arrazoi nagusietakoa da.

Bestalde, urtero 5 milioi hegazti bizi, 10 milioi narrasti-larru, 15 milioi ugaztun-larru, 9 milioi orkidea eta 350 milioi arrain tropikal erosi eta saltzen dira legez kanpo. Izaki bizidun horiek guztiak beren habitat edo natur inguruetik atera eta arrotz zaien ingurune batera eramaten dituzte. Animaliak eta landareak legez kanpo merkaturatzen dituen jarduera horren ondorioz, gaur egun 700 espezie galazorian daude.

%30 Espainian egiten da Munduan babesturik dauden animalien eta landareen legez kanpoko merkataritza-jardueren ia heren bat Espainian egiten da (batez ere pasadizoko trafikoa gisa). Kokaleku geografiko estrategikoa duenez, Iberiako Penintsula leku ezin

egokiagoa da era guztietako merkataritza-jardueretarako eta itsasoz nahiz airez egiten diren komunikazioetarako. Gainera, Penintsulako fauna bera ere izugarri aberatsa da. Hori dela eta, isileko ehiztariak, gizatasun-arrastorik ez duten pertsonak, gaizkileak eta mafia antolatutako landak eta basoak arakatzen ibili ohi dira, non-zer harrapatuko gero saltzeko. Eta axola gutxi die gainera zer harrapatu: hartz arreak, sarrioak, basoilarak, katamotzak, eguzki-arranoak edo belatz handiak. Era guztietako txoritxoak harrapatzen dituzte eta baita dordokak ere.

Arazoi horientatik, basafauna eta floraren Galzoriako Espezieen Nazioarteko Merkataritzari buruzko Hitzarmenak (CITES) babesten dituen espezieei dago-kienez, Espainia da, Argentina, Indonesia eta Tailandiarekin batera, legez kanpoko trafikoa handiena duen herrialdeetako bat.

Gero eta eskari handiagoa

Animalia exotikoak edo horien ataletako batzuk (letaginak, garaikur gisa erabiltzen diren buruak, larruak...) izateko eskaera handia dagoelako harrapatzen dituzte horrelako animaliak. Oso bakana edo bixia den animalia bat izatea modan dagoenez, eta larru berezi batzuekin janzteak halako estatus bat ematen duenez, arlo horretan sortzen diren eskakizunei erantzuteko etekin handiko jarduera bat sortu da. Orain

urte batzuk arte ez du bate-re zigorrik izan, trafikatzailerak gogor zigortzeko legezko jardunbiderik ere ez baitzegoen. 1975. urtean, hogeitaherrialdek, horien artean Europako Batasunakoe-k, CITES sinatu zuten.

Geroztik, espezie horien trafikoa delitutzat hartzen da, eta CITES horretan oinarritu den 1997ko europar arautegi berriaren arabera, trafikatzailerak 6 urte bitarteko kartzela-zigorra izan dezakete. Hala ere, nazioarteko kontrol guztiak gorabehera, negozio horretan zigorgabetasuna eta errentagarritasuna nagusitzen dira, gaizkileak eta beren banaketa-bideak aurkitzea oso zaila izaten baita. Sarritan frogatu izan denez, arlo horretan lezea urratzen dutenak eta legez kanpoko arma eta drogen salerosketan dabiltzanak pertsona berberak izan ohi dira. Bestalde, harrapaturiko lau animalietatik hiru hil egiten dira haiek harrapatu, garraiatu edo merkaturatzeko garaian.

Izaki bizidun babestuen salerosketa horren eraginez, animalia-populazioak aldatu egiten dira. Populazio horien urritzeak zuzeneko eragina du beste espezie batzuetan, elika-katea desorekatu eta intsektu-izurriak ugartu egiten baitira, haien harrapariak hil ondoren. Adibidez, Asian, malaria-eramaileak diren eltxoez elikatzen diren zezen-igelak neurritz gain harrapatu ondoren, gaixotasun hori gehiago zabaldu da.

JAKIN BEHARREKOAK

Geroz eta nekazal landare mota gutxiago dago. FAO-ren arabera, espezie barietateen %75 galdu da. Industria agrokimikoarentzat errentagarritasun handien duten barrietateak inposatzen dira. Izurriteek erraz erasotzen diete eta hazi hauekiko menpekotasuna sortzen da. Bertako haziak ordea, gaixotasunen aurrean hobeak dira eta lurrari hobeki egokitzen dira.

Almeriako kostaldean koralez eta gorgoniez osaturiko 'basoa' aurkitu dute. Balio ekologiko handiko gunean, bertan ezezagunak diren espezieak bizi dira.

Euskal Autonomi Erke-degoko lurraldearen %14 'Red de Corredores Ecológicos'-en parte izateko proposaturik dago. Gune naturalak lotzeko beharrezkoak dira, eremuak bakarturik geratu ez daitezen

LIBURUA

"El reto ético de la nueva cultura del agua" Pedro Arrojo, Ed. Paidós. Uraren kultura berria aurkezten du liburu honek. Berdintasuna eta jasangarritasun oinarri etikoak izanik. Pedro Arrojo Zaragozako Unibertsitateko Analisi Ekonomikoko irakaslea da eta "Fundación nueva cultura del agua"-ko lehendakaria

WEB-GUNEA

www.aefona.org Naturako argazkilarien araudi etikoa irakurri dezakegu.



“Irratia da gustokoen dudan hedabidea, xarma berezia du nire ustez”

Trafikoaren berri ematen duzu Euskadi Irratian orduerdiro. Nola eta nondik burutzen duzu zure lana?

Billbotik aritzen naiz, Euskadiko Trafikoa Kudeatzeko Zentritik. Kamareti begira, Ertzaintzari eta Foruzaingoari galdezka eta entzuleen oharrak jasoz egiten dut lan.

Arazorik gehien izaten den errepidea zein da?

A-8a zalantzarik gabe.

Eta istripuaren arrazoirik ohikoena?

Gehiegizko abiadura dela esaten dute. Dena den, euria egiten duen egunetan izaten da istripu gehien, alde handiaren.

Ikusitakoa ikusita, arretatsuago ibiltzen al zara errepi-dean?

Bai, euria egiten duenetan batez ere.

Puntukako karnetak eduki al du eraginik?

Baietz dirudi baina epe luzera eraginkorra izango ote den zalantzak daukat.

Irratia, telebista ala prentsa idatzia?

Irratia eta prentsa. Irratia da hala ere, gustokoen dudana. Xarma berezia du nire ustez.

Kirola, politika, ekonomia, nazioartea....

Politika eta nazioartea.

Pelotaria zara, palan aritzen zara. Komunikabideetan nahi adina lantzen al da pala?

Toki handiagoa nahi nuke hedabideetan palarentzako, ez futbolak duen gehiegizko garrantzirik, jendeak pala zer den jakiteko adina toki baizik.

Kirol bat:

Euskal pilota eta haren barruan pala.

Zaletasun bat:

Musika.

Amets bat:

Bidaia bizitza.

Ordiziako alkate izango bazina...

Oiangu herritarrentzako tokiak litzateke, publikoa eta bizia.

Zerk sortzen dizu negarra?

Barreak.

Eta barrea?

Inguruko barreak.



mazda

Bikar, S. A.

☎ 943 889 296
Faxa: 943 887 952
N-1 errep. 419 Kma
BEASAIN





Alpe
SUKALDE ALTZARIAK

sukalderik goxoenak

Mariarats 10 Beasain
Tfnoa 943 88 86 84

Daniela Mihoci: errumaniarren bitartekaria



Duela lau urte iritsi zen Daniela Mihoci Goierriara. Irakaslea zen Errumanian eta hemen ere, irakas-kuntzarekin lotutako lanean jarraitzen du. Itzultzaile lana egiten du, errumaniatik iristen diren ikasleekin, eta aldi berean fami- liei, harrera egin eta laguntza ematen die.



ondoeta


**GARAJE INDUSTRIA ETA FAMILIARTEKO
ETXEBIZITZETARAKO ATE METALIKOETAN
ESPEZIALDUA, ESKUZKOAK ETA AUTOMATIKOAK**

E-mail: ondoeta@ondoeta.com

www.ondoeta.com

© 943 88 31 02 - 943 88 74 51 Faxe: 943 88 08 72

201 Industrialdea, 18. pabilioia OLABERRIA



xetai

www.xetai.net

Armairuak · Altzariak · Osagarriak
Tel.: 943 88 43 84 Oriamendi, 30 BEASAIN

Zein lan egiten duzu?

Bitartekari lana egiten dut nolabait, ikastetxearen eta haurraren eta bere familiaren artean. Ikasleen itzultzaile ere egiten dut. Itzultzailea deitzen digute, baina gehiago gara bitartekariak.

Haurrei hemengo ohituraren berri ematen diet, hemengo hezkuntza sistema nolakoa den azaldu, ezberdina baita.

Teorian itzultzaile naiz, baina azken batean, gizarte laguntzaile lana betetzen dut. Lagundu egin behar zaie. Gurasoak lana egin nahi dutelako daude hemen baina haurrak, behartuta daude, gurasoek hala nahi dutelako.

Zein prozesu jarraitzen duzue?

Escola batera errumaniar bat iristen denean, Hezkuntza Ordezkaritzan horren berri eman eta enpresarekin harremanetan jartzen da, itzultzaile edo bitartekari bat bidaltzeko.

Euskara zail egiten al zaie?

Haurrek erraz ikasten dute euskara, neuronak hazten dihoazkie-eta. Dena den, gaztelera errazagoa egiten zaie, errumanierarekin antzekotasun gehiago dauka eta.

Aldaketa handia al dago Errumaniako eta hemengo hezkuntza sistemaren artean?

Hemen haurrak adinaren arabera mailakatzen dira baina Errumanian, jakintza-aren arabera. Hemen normalean, ikasturte bat gutxiago bezala sartzen dira. Ezberdina da. Askotan arazoak izaten dituzte, dakitenez eta hizkuntza ulertzen ez dutenez, aspertu egiten dira. Be-



"Haurrei, jangelan gelditzea kostatu egiten zaie, janaria bera ere ezberdina baita".

raz, motibatu egin behar dira eta gure laguntza horretan egoten da.

Bestetik, han etxeko lan gehiago bidaltzen dizkie. Hemen eskolaz kanpoko ekintza gehiago dituzte. Orduetgia ere ezberdina da. Hasieran asko kostatzen zaie. Errumanian goizez bakarrik joaten dira eskolara, ordutegi jarraia daukate eta etxera joaten dira bazkaltzera. Arratsaldean eskolara joan beharra asko kostatzen zaie, siesta egitera ohituta baitaude. Eta jangelan baz-

kaltzen gelditzea ere bai.

Zer egiten zaie zailena?

Haurrei, jangelan gelditzea kostatu egiten zaie, janaria bera ere ezberdina baita. Dilistarik ez zaie gustatzen... Etxean bazkaltzen ohituta daude. Baina behin egokitutakoan jangelan gelditzea eskatzen dute.

Haurrak zu iritsiko zain egongo dira, ezta?

Bai, beraien babesle bezala hartzen naute. Jakiten dute zein egunetan joaten naizen eta zain egoten dira. Egunero joatea ez da ona, ez bai-

tira behartzen hizkuntza ikasten. Galdetzen ikasi behar dute. Hasieran, komunera joatea ere ez dute eskatzen, lotsagatik... Arrastoa uzten duen lana da. Haur batek, ni ikusi nindue-nean, malkoak erori zitzaizkion. Sentimentu asko dituzte barnean, eta bere herriko norbait ikustean, hunkitu egin zen. Orain berriz, euskaraz primeran hitz egiten du eta pozik dabil Idiazabalaren.

Gainerantzean zer moduz egokitzen dira?

Haurrek hasieran behar bada zailagoa izaten dute lagun faltagatik-edo, konfiantza hartu arte. Baina haurrak oso ondo portatzen dira eta harreman onak egiten dituzte. Euskaldunak oso irekiak ez zaretela esaten da baina haurren artean ez dago inolako arazorik, oso irekiak dira.

Haurrek beraien babesle bezala hartzen naute. Egunero joatea ez da ona, ez baitira behartzen hizkuntza ikastera. Galdetzen ikasi behar dute.



kutxa

Familiarekin zein harreman mota daukazue?

Familiak bisitatzen ditugu eta aholkuak ere ematen dizkiegu, hizkuntzak non ikasi, nora joan paperak lortzeko... gizarte laguntzaile lana ere egiten dugu.

Gurasoak zer moduz egoitzen dira?

Gurasoak azken batean, euren erabaki dute hona etortzea eta badakite zertara datozen. Haurrak, nolabait, behartuta datoz, eta horregatik uste dut hurrei gehiago kostatzen zaiela egokitzea.

Gehienek paperak daukate. Aitak adibidez, urte batzuk daramazki hemen eta gero bere familia ekartzen du. Gustura daude hemen. Gainera oporretan beraien herrira itzultzen dira eta pozik daude.

Euskara jakinda errazagoa da lana aurkitzea. Baina zaila da, lanari eustea, familia zaintzea eta euskara ikastera joan behar izatea. Baina batzuk ahalegintzen dira.

Gero eta errumaniar gehiago datoz. Zein da arrazoia?

Hemen beste bizitza maila bat dagoela esan dakite, beste aukera bat. Hemen jendeak irribarre egiten du. Errumaniar ez, agian, bihar lana izango ote dutenaren kezkatik. Lan segurtasun eza handia dago. Enpresak itxi egiten dira eta 40-45 urterekin lana bilatzea zaila da. Beraz, Errumaniatik ateratzea erabakitzen dute. Gehienak, Italiara eta Espainiar Estatura etortzen dira. Lehen Alemaniara ere joaten ziren baina sartzea zaila goa da gaur egun.

Zertan lan egiten dute hemen?

Normalean hemengoek egin nahi ez dituzten lanak egiten dituzte. Eraikuntzan asko. Baserrietan, adineko pertsonak zaintzen... Haurrak zaintzeko euskara dakitenak nahi izaten dituzte.

Errumaniar euskalduna

Daniela Mihoci, 36 urteko errumaniarra, Olaberrin bizi da. Duela lau urte etorri zen Goierriara, eta harrezkerotik bertan bizi da, lazkarotekin ezkontuta. “Ni zuzenean etorri nintzen hona, nire senarra ezagutera. Ahizpa zegoen hemen eta senarra ezagutera etorri nintzen. Eta oso ondo, oso familia ona da eta asko gustatu zitzaidan. Haurdun nago eta alabatxoa jaioko da urtarrilean”, esan du Danielak. Haurarentzat euskarazko izena pentsatzen ari da. “Errumaniarrez egingo diot nik, senarrak euskaraz eta gaztelera kalean ikasiko du”.

Moldaviarekin mugatzen den eskualdekoa da Daniela. Errumaniar ere irakaslea zen. Gustura dago Goierri eta ez du Erramuniaren falta handirik somatzen. “Jendeak agurtu egiten zaitu kalean. Eta hori asko gustatzen zait. Zertara joango naiz Errumaniara, nire familia hemen daukat. Oporretan bai, baina bizitzeko hemen gustura nago. Askotan iruditzen zait bizitza guztia hemen daramadala. Hemengo jendea askotan, hangoen antza ere hartzen diet. Paisaia ere berdintsua da”, dio Danielak.

‘Ze in behar deu?’

Euskara ikasten ari da errumaniarra, etxean eta ikastetxeetako hurrekin eta irakasleekin euskaraz hitz egiten du. Danielak argi dauka, “nire oraingo familia hemengoa da, euskaraz hitz egiten du. Eta errespetatu egin behar dira bertako kultura eta ohiturak”. Errumaniarrak gaineratu duenez, euskararik ez dakienak nahi ez duelako da.

Goierriarekin nahikoa lan izaten du. “Goierriak batuarekin antzekotasunik handiena du eta ulertu egin beharko nukeen. Baina ez da horrela. Asko jaten duzue. ‘Ze in bear deu?’ Esan zidan hasieran lehenengo egunetan nire senarrak. Ni nire buruan hasi nintzen zer esan nahi ote zuen pentsatzen: zein... deu katalanez bai, baina euskaraz... ‘Zer egin behar dugu’-tik ‘ze in bear deu’-ra badago alde pixka bat. Baina ikasi egiten da hori ere. Senarrarekin euskaraz hitz egiten dut, ez zait axola gaizki egitea-eta”, azpimarratu du errumaniarrak. Euskaraz hitz egiteko abantaila bat badute errumaniarrek: Tx eta Tx hotsak oso ondo bereizten dituzte.

Hizkuntzekin zorrotza da Daniela eta zuzentasuna gustatzen zaio. “Nik asko zuzentzen dut. Mina egiten dit euskaraz hitz egiterakoan gaztelera hitzak sartzea, euskarazkoak egonda. Tragau ez da euskaraz, tenedorea ere ez... Hori ez da euskara. Mina egiten dit gaztelera hitzak hartzea. Ez da nire hizkuntza baina mina ematen dit. Pentsa euskalduna izango banintz!”.

Bitxikeria bat kontatu digu Danielak. “Aurreko batean, supermerkatu batean, ‘berza’ jartzen zuen. Gaztelera ‘verza’ v-rekin da nik dakidanez. Eta dendariak esan zidan euskaraz zela. Hori noiztik da euskaraz?”.

Euskaldunekin kritikoa ere bada errumaniarra: “euskaraz ari direla, askotan gaztelera ere pasatzen dira. Nik aldaketa hori zergatik egiten ote duten galdetzen diet. “Bi hizkuntzak menperatzen ditugulako da hori” esaten didate. Baina hori ez da horrela. Bi hizkuntza menperatzeak esan nahi du, bat oso ondo menperatzea, eta bestearen beharrik ez izatea. Ni hizkuntza batean hizketan ari banaiz eta beste hizkuntza bateko hitza sartzen badut, hizkuntza hori menperatzen ez dudalako da”.





Beirut begoaldean, Haret Hreit distritoan

©uly martin-EL PAIS

Mikel Aiestaran kazetaria, Ekialde Hurbileko berriemailea

Beasaingo kazetariak betiko ametsa bete du aurtengo udan: gerrako berriemaile lana egitea. Libanon harrapatu zuen gerrak. Bertan gelditu eta gerraren berri zuzena ematea erabaki zuen Mikel Aiestaranek. Ekialde Hurbilean gustura dabil lanean beasaindarra, batez ere Iranen. Oporretan harrapatu badugu ere, hilabete bukaerarako berriz ere Libano aldera joateko asmoa dauka 31 urteko kazetariak.



LOGOS
MOBILIARIO INTEGRAL

Goierri egindako
sukaldeak

Libanoko gerrako informazioa bertatik bertara zabaltzen ikusi, entzun eta irakurri dugu Mikel Aiestaran Beasaingo kazetaria. Garrantzitsua izan da Aiestaranentzako Libanoko gerra: lehenengo aldiz bizi eta sentitu izan baitu gerra bat bertatik bertara; telebistarako lana ere lehenengo aldiz egin du, kamara aurreko zuzeneko emankizunak eginez; eta lehenengo aldiz, Euskal Telebistan, euskaraz lan egin du.

Lehenengo aldiak beti izaten dira bereziak eta Beasaingo kazetariarentzako ere halaxe izan da. Dena den, kasualitatez, leku egokian momentu egokian izatearen ondorioa izan zen: “lurrikarak, hondamendi naturalak kubritzea tokatu zait, baina gerrarik ez. Nazioarteko atalean hasi nintzenean, beti izan da helburua gerra bat jarraitzea. Helburua ez dakit, baina beti izan dut buruan gerra bat zer izango ote litzatekeen jakiteko gogoia. Irakera ez nintzen joan. Libanora ere ez nintzen espreski joan, gerrak han harrapatu ninduen. Iranen nengoen bizitzaren eta Irango lagun batzurekin, Beirutara joan nintzen lan bat egitera, hiru egunerako. Itzultzekotan geundean, baina aireportuak puskatzen hasi ziren eta han gelditu nintzen”, argitu du Mikel Aiestaranek.

Hasierako 10 egunak, Beiruten, hiriburuan egin zituen. “Han nahiko ondo. Baina gero mugako bidean, gogorra izan zen. Kotxez mugitzeko oso zaila. Etxeratzeko aginduan indarrean sartu zenean oso zaila izan zen. Jendea ebakuatzen, hildako asko zeuden. Gerra irekia zen, kanpotik ez zen inolako laguntzarik ikusten...”, zehaztu du.

Tiro herrian, beste egun batzuk ere egin zituzten. “Zarautz tankerako kostaldeko herri bat da. Hotelik ez zegoen eta etxe partiku-



Beiruteko Binti jaiak berria © Monica Letiva-AVUI

Ekialde Hurbilerako joera

18 urte bete zituenetik, motxila bizkarrean hartu eta munduko txoko ezberdinak ezaigutzen aritu izan da Mikel Aiestaran. Ekialde Hurbilera askotan joan da. Oso gogoko du eta oso gustura sentitzen da bertan. Batez ere, Iranen.

Pixkanaka ordea, zaletasuna eta lana uztartzen joan da. Aurten adibidez, lau hilabeteetan egon da Teheranen, hilabete eta erdi Afganistanen eta Libanon. “Orain bidaiak, zoritxarrez, lanera bideratzen ditut. Arazo sozialak dauden lekura joaten naiz eta leku horietan, azala pixka bat harrotuz gero, berehala sortzen da zerbait eta hori ere oso interesgarria da”, adierazi du Mikel Aiestaranek. “Oso gustura nago Iranen. Lanerako oso toki ona da Iran, bizitzeko ere bai. Afganistan lanerako eta kitto. Demokrazia berri hori inplantatzera joan zirenetik, ezin da Afganistan egon, batez ere atzeritar bezala. Baina itzuliko naiz”, aitortu du. Iranen egoeraz galdetuta, “politikoki ez dago batere ondo, denok dakigu erregimen itxia dela. Baina profesionalki, eta lanerako, oso-oso leku interesgarria da. Hango bizitza filosofia gustatzen zait. Baina praktikoki ere bai. Hemengo diruarekin han bizitzea erraza da”, gaineratu du beasaindarrek.

Orain arte esperientzia “motzak” bizi izan ditu, 4-5 hilabetekoak. “Gustatuko litzaidake esperientzia luzeagoak edukitzea Ekialde Hurbilean, agian Beiruten”.

Ekialdeko irrika

Amerika aldera ere joan izan da Mikel Aiestaran, baina nahiago du Ekialde Hurbilera joatea. “Beharbada segurtasunagatik. Amerikan beti, lanerako zailtasun gehiago izaten da. Ekialde Hurbilean, ondo, segurtasuna, jendea, tokia, historia... batez ere xiiiten historia asko interesatzen zait. Eta xiiitak Iranen, Sirian edo Libanon daude. Hori pixka bat jarraitu nahi izanez gero inguru horretan ibili behar. Niretzat datozen urteetan horixe izango da nazioarteko gatazka. Lana egongo da, zoritxarrez. Oso mugitua dago, Irakeko arazoa pil-pilean baitago”, azpimarratu du Aiestaranek.

larrak alokatzen genituen. Etxe berdinean, kazetari ezberdinak bizi ginen. Nire kasuan, kazetari turko bat, Italiako Rai telebistakoa... Kera egoeran han egoten ginen, kartetan, irakurtzen, batailak kontatzen... Nik batailak gutxi, baina hangoak eskarmentu handiko jendea zen. Iraken, Txetxe-

nian... egonak. 30 urteko kazetari asko ez zegoen han”.

Sentipen asko bizi izan ditu Mikel Aiestaranek. “Inpotentzia handia sentitzen da. Jendearekin hitz egin nahian zabilta, eta konturatzaren zara %5a ere ez duzula transmititzen. Oso zaila da transmititzea han ikusten

eta sentitzen duzuna. Tsunami bat bezala izan da, hegoaldean ez dago ezer. 30 kilometroko zati bat, erabat garbituta dago eta hango egoera argazki bidez transmititzea oso zaila da”.

Beldurra ere sentitu izan du beasaindarrek, leherketak oso gertuan izaten baitzituzten.

Telebistako esperientzia

Orain artean prentsa idatzian lan egin izan du Mikel Aiestaranek, baina Libanoko gerraren berri, telebistaren bidez ere zabaldu du oraingoan. "Etxekoentzako lasaitasuna ere izan da, egunero, eguerdian eta gauean, ikusten nindutelako", aitortu du. Behin telebista probatuta, beasaindarrak nahiago du prentsa idatziko lana. "Telebistan, presaka lan egin behar izaten da. Zuzeneko konexioa egiterakoan gainera, ilaran, herrialde ezberdinetako 10 kazetari jartzen ginen, bat txinoz, bestea japonieraz, bestea polakoz... hitz eginez. Izugarrizko konzentrazioa behar da. Zaila izan zen hasiera", aitortu du.

Teknologia berrien abantailak aprobetxatzeko makina bat zailtasun ere izan ditu. "Ni hiru egunera-ko bakarrik joan nintzen Beirut, orduan teknologia berriak etxean utzi nituen. Dena erosi behar izan nuen. Baina teknologia berriek entxufeak behar dituzte eta han elektrizitaterik ez dago. Generadorea behar da, gasolina ere bai, baina gasolinarik ere ez dago, merkatu beltzean lortu behar duzu. Etxe partikular batera joan ordubeterako generadorea alokatu, mobila kargatu, ordenadoreak kargatu, kamarak kargatu..." dio beasaindarrak.

Usaimen onekoak

Kazetaritzaren beste alderdi bat ere ezagutu izan du beasaindarrak. "Kazetarien artean maila ezberdinak daude. Batzuk lehenengo mailan daude, besteak bigarrenen... Usaimen onak dau-



Mikel Aiestaraneak Beiruten ateratako argazkiak.

katena beti aurrean ibiltzen dira. Oso profesional onak ere ikusi ditut, batez ere argazkilariak eta kamerak. Askok ikasten da. Komunikabide txiki batetik irlanda horrelako gauza bat bizitzea, profesionalki oso aberasgarria da". Gerrako berriemaile mitikoak gertutik ezagutzeko aukera

ere izan du.

Beasaindarrari ere kazetarien usaimena garatzen ari zaiola dirudi. Lehenbailehen Ekialde Hurbilera itzultzea da bere helburua. "Han egonda aukera gehiago daukat lanerako. Nik uste esperientziarekin, komunikabideek ere badakitela ni han nagoela eta ez daukat

bost minuturo telefonoz deika ibili beharrik. Helburua, lehenbailehen itzultzea da. Hilabete honen bukararako espero dut Beirut edo Damasco aldera joatea. Zer kontatua badago gerra ondoren honetan ere. Libanon geratu den egoera ez da erraza. Gerra zibilaren usaina badago. Kazetari asko ari da elkartzten bertan eta kazetariak pilotzen hasten direnean, zerbait izaten da. Eskarmentu handiko kazetariak dira, azkeneko 30 urteak gerran daramazkitenak. Espainiako komunikabide handiek, kazetari bat utzi dute badaezpada ere Beirut. Espainiako tropak ere han daude, baina seinale txarra da hainbeste kazetari elkartzea".

Gerrako berriematea

Kazetari askoren ametsa gerrako berriemaile izatea izan ohi da. Mikel Aiestaranek momentuz bete du ametsa eta oraindik ere beste gerra baterako joateko gogo handiagoa gelditu zaio. "Beste gerra batera joan eta lana hobeto egiteko gogo gelditu zait. Orain badakit pixka bat nola den asuntua. Azkenerako beldurra pixka bat kontrolatzen duzu; hasieran ez. Gerra arraroa zen. Itsasuntzietatik eta hegazkinetatik egiten zizutzen bakarrik erasoak. Militarrak ez ziren ikusten. Gazan, behintzat, ejerzittoa ikusten duzu, baina hemen ezin zen kontrolatu. Israeldarrek erasotzen dutenean, ez daukate ez konbentzio-rik, ez legerik. Eraso egiten dute eta kitto. Ez dute kolorerik errespetatzen. Nazioen Batuen Erakunderik ere ez".

PSIKOLOGI KLINIKOA
**Jose Ramon Pato Prieto**
Psikologian lizentziatua
Elkargokide zenbakia: E-2644
RPS: 420/01
AURRE ZITA ☎ 943 887 221 ☎ 610 020 041
JM Arana, 1 - 2. esk. esk. BEASAIN

Helduen, umeen, bikoteen eta sexologi tratamenduak

**LADA**
Ssang Yong

ARANDIA
Garajea
AUTOEN KONPONKETA

N-1, z/g Iurre Auzoa
OLABERRIA
☎ 943 88 09 47



Islama

Islamarekin topo egin du beasaindarrek. "Integrismo guztiek arazoak sortzen dituzte eta horixe gertatzen ari da. Erlijioa eta politika nahasten da kasu askotan, eta hortxe sortzen dira lis-karrak. Iranen bezala, politikariak eta apaizak denak bat dira. Jende ona leku guztietan dago. Guretzat denak moroak dira baina denak ez dira moroak. Ara-beak dira. Irangoak adibidez, persak dira. Sumitak ez dira xiitak. Gauza asko daude. Ezberdintzen ikasi dut eta saiatzen naiz hori zabaltzen. Hego Amerikakoak bezala: Argentinarrak eta boliviarrak ez dira berdinak". Aita Santuaren konparaketa egin du: "hemen ere Aita Santua politikan sartzen denean arazoak sortzen dira. Aita Santuak erlijioa egin dezala. Islamaren arazoa momentu honetan hori da, erlijioa guztia-ekin nahasten ari dira eta asko ez dira ondo kokatzen. Erabat bereiztu behar dira", gaineratu du.

"Itsasertzik ikusi gabe itsasuntzian bidaia luze bat egitea da nire ametsa"

Oporretara beraz, deskonektatzera ez zara joango.

Orain ez. Azken urteetan oporretan beti joan izan naiz, hondamendi naturalak gertatu diren lekuren batera, hondamendia gertatu eta sei hilabetera adibidez. Orlean-sera ere hala joan nintzen. Libano ere hor dago. Kamarak itzaltzen direnean, bertan dagoena ere oso interesgarria da baina hori ez da azaltzen. Gerra dagoenean interesa dago baina bukatzen denean, interesa, pertsonala bakarrik da. Baina ni bueltatu egiten naiz. Halako krisialdi batean jendea ezagutu eta handik sei hilabetera pertsona horrengana joatea, oso aberatsa da. Hori gustatzen zait, itzultzea.

Oporretara joateko ametsetako leku bat:

Ni itsaso zalea naiz, nahiz eta beasaindarra izan. Baina gustatuko litzaidake, itsasuntzi bat hartu eta itsasertzik ikusi gabe egotea. Aspalditik hori buruan sartuta daukat, baina orain arte ez dut lortu.

Gomendatzeko leku bat:

Iran. Momentu honetan daukan publizitate txarrarekin, bidaiatzeko oso leku eroso da, jende jatorra dago... Lurralde xiita ere hor dago, daukaten prentsa txarra ikusita, ikusteko benetan nolakoak diren. Nire inguruko jendea hasi da Irana joaten eta denek ezustea eramaten dute.

Bidaietan derrigorrean eraman beharrekoa:

Liburuak eta mapak beti eramaten ditut. Oso musikazalea naiz eta mp3-a beti eramaten dut. Orain ordenagailu pertsonala ere bai... Motxila betetzen zait. Baina oinarrizkoena, liburuak eta mapak.

Irla huts batera zer eramango zenuke?



Pertsona bat, lagun bat. Musika eta liburuak ere bai.

Amets bat:

Nire ametsa honetaz bizitzea zen eta momentuz lortu dut aurtan. Baina zoritxarrez lurrikarak-eta beti gertatzen dira eta mugitzeko prest bazaude... Nik beti motxila prest daukat etxean. Pasaporteak ere bai. Betiko prest nago mugitzeko eta hori eskertzen dute egunkariek. Nire helburua da hurrengo lau urteetan erredakzio batean ez sartzea.

ALDANONDO GARAJEA

MICHELIN zerbitzu ofiziala

Gurpil lanak,
alineazioa,
aluminiozko llantak

Filtroak, olioak,
engrasea

Frenu pastilak, tubo
eskapeak, bateriak

Harezko txorrotadak



Errota Poligonoa IDIAZABALgo sarreran ☎ 943 18 72 57

over Urraki
Bidaietan adituak

Kale Nagusia 42, behea **BEASAIN**
Tel.: 943 80 40 15 Faxa: 943 80 55 79
urraki@over.es www.over.es

Xabier Arakama: trikitilari txalapartaria

"Txalaparta bezalako instrumenturik ez dago inon"

Txalapartaren munduan barneratuta dabil azkenaldian Xabier Arakama. Zorabiok taldean eta Euskadiko Txalaparta Konpainian dabil, txalapartari haize berriak emanez eta elementu be-

rriak sartuz. Kepa Junkeraren disko berrian ere parte hartu du. Trikitixarekin ere jarraitzen du, eskolak emanez, eta Trikitizio taldearekin plazaz plaza jendea dantzan jarritz.



Erretegi bezala zabalik

- * Eguneroko menuak
- * Karta zerbitzua
- * Ospakizunak
- * Plater konbinatuak

Zubierreka,9 © 943 16 25 23 LAZKAO




ANZIZAR, S. A.



**Autoen salmenta
Mekanika eta
elektrizitatea**

Beasain-Zumarraga, 46 Km.a **BEASAIN**
www.anzizar.com ☎ 943 88 17 00 Faxa.: 943 88 48

Orain arte trikitixa munduan ezagutu izan zaitugu. Noiztik txalapartarekiko lotura?

Oso oinarritzko jakintza neukan txalapartaz, Musikenen hasi arte. Musikenen musika tradizionalen atalean ibili nintzen, 2002an hasita. Atal horretan, txalaparta, alboka, munduko perkusioak sartzen ziren.

Musikenen, goi mailako musika zentroan, egin zenuen beraz topo txalapartarekin.

Gehienbat bai. Batez ere, nik bezala, gauza berriak bilatu nahi zuen jendea aurkitu nuelako.

Guzti horretatik zer aterazen da?

Txalapartaren mundua gaur egunean oso zabala da. Aukera asko dauzkazu: nahi baduzu txalaparta tradizionaletik hasi eta hortik aurrera mundu bat daukazu. Asko aldatu da txalaparta. Orain bertan, Zorabiokarekin saltseatzen ari naiz, proiektu luzea da. Kapoeira, euskal dantzak, musika elektronikoa, trikitria, alboka, ikusentzunezkoak... elementuak sartzen ditugu. Ikuskizun ezberdinak daukagu.

Euskadiko Txalaparta Konpainian ere banabil. 6 txalapartari gabiltza. Kepa Junkera da zuzendaria. Bere disko berrian grabatu dugu. Txalaparta kontzertuak ematen ditugu. Egurrezko hiru txalaparta, harritzko txalaparta, tuboak... Txalaparta konpainiarekin Kepa Junkerak ere jotzen ditu bost bat kanta.

Harrigarria da txalapartarekin zein doinu ateratzen den.

Asko ari gara aurreratzen



Zorabiok, Ordizian

Musikenen txalapartarako grina sortu eta Zorabiok taldea sortu zuen Xabier Arakamak, duela 3 urte. Txalaparta oinarri duen taldea da Zorabiok eta proba ezberdinak egiten ari da. “Epe luzeko proiektua da. Lau kontzertu eskaini ditut. Bi rock kontzertuetan eta bat Donostiako Principal antzokian eta beste bat Kataluniako folk jaialdi batean. Abesti denak nik egindakoak dira. Garbi ikusten dut nondik joan nahi dudana. Oso zaila da nik pentsatuta bezala egitea, kontzertu batean edo beste talderen baten aurretik. Eszenatokian gauza asko egoten dira eta hurrengo taldeari ere utzi egin behar zaio. Folk jaialdietan ere berdina gertatzen da. Leku egokiena, lana lasai egiteko leku bakarra, antzokia da, eta aretoa handiak. Eszenatokian 20 lagun gaude: 4 musikari, dantzariak, kapoeira bat... Ikusentzunezkoekin ere probatu dut, pantaila erraldoietan... aurrekontua asko igotzen da”, azpimarratu du zegamarrak.

Kapoeira

Kapoeira ikuskizuna ere sartu ohi izan du Xabier Arakamak Zorabiok ikuskizunean. “Kapoeira oso ikusgarria da: Brasilgo dantza bat, kultura bat da. Esklabuek atsedendietan egiten zuten borroka bat da, denborapasa bat bezala. Baina ez ziren jotzen. Defentsako posizioak... Borroka mugimenduetatik sortutako dantza da”.

Hau guztia ikusteko aukera, Ordizian izango da, urriaren 28an, gaueko 9etan, Jakintza Ikastolan, Sustraietz Blai-ren barruan.

horretan. Oreak TX-ekoek aurreratu dute asko. Euskadiko Txalaparta Konpainian, ni naiz materialaren ardura daramadana. Txalaparta, norberak egiten duen instrumentua da, bere gus-tura. Material berriak probatzen ari gara.

Orain arte zein material

erabili izan da?

Haritz egurra. Baina egurra baino askoz ere inportante-agoa da egurraren neurria. Nota ezberdinak lortu nahibadira, zabalera eta lodiera berdineko egurra izan behar da. Egurrak ze hezetasun daukan ere kontuan hartu behar da. Guk egin

dugu pinuzko txalaparta bat eta oso soinu ona dauka. Beste txalaparta txiki-txiki bat ere badaukagu, tulipi materialekoa, oso arina da, eta edozein lekutara eraman daiteke. Soinua ez dauka ona, baina mikrofonoekin-eta jarrita oso ondo jotzen du. Bidaiak-eta egi-



Zunzunegi
Oinetakoak
Hirigoien, 8A LAZKAO
943 087 913

San Inazio, 14 BEASAIN
☎ 943 889 390

Garagartza pl., 1 ORDIZIA
☎ 943 805 327

San Franzisko, 8 TOLOSA
☎ 943 650 239



Lirain
Lurrindegia eta opari gaiak

Euskadiko Txalaparta Konpainia

Xabier Arakama Euskadiko Txalaparta Konpainiako kidea da, beste 5 txalapartarekin batera. Txalapartaren mundua berritzeko gogoz jaioa da Euskadiko Txalaparta Konpainia. Kepa Junkera zuzendari artistikoa buru dela, etxak-ek berritasun, ikerketa eta txalaparta eta perkusioaren munduaren erabili behar diren material eta ideia berrien arteko garapenaren bidai musikala bat hasi du.

Txalaparta Konpainiaren "helburuetariko bat txalaparta munduaren eta bere materialean (egurrak, harriak, kartoizko tutuak, eta abar) ikerketa eta garapenean datza. Material hauekin txalaparta edozein musika motari molda dakioke".

Horrekin batera Txalaparta Konpainiak, hezkuntzari garrantzia handia ematen dio. "Euskadiko Txalaparta Konpainiak uneoro musikariak hezitzen ditu, bai jotzeko eran bai musika munduan sakonduz. Lan honetan Donostiako goi mailako musika zentroaren laguntza, Musikenerena, dauka bai 'Musika tradizionalaren joera berriak' kurtsoa emanaz bai bertako ikasleak etxak-eko partaide bihurtuz", diote.

Euskadiko Txalaparta Konpainiarekin Japonian izan dira, txalapartaren doinuak munduan barrena zabalduz.



ten ditugunean, beti eramatzen dugu kanpora. Kataluniara asko joaten gara eta txalaparta txiki hori golfeko poltsa batean sartu eta eramatzen dugu.

Material aldetik gauza asko ari gara ikusten. Harriak, silestona, burniak, kartoia, plastikoa, bidoiak-zutikako egituratan jartzen gauzak ... Baina pixka bat irten egiten da, perkusiora.

Txalaparta tradizionale-tik dezente irteten ari zarete, ezta?

Berezitasuna jotzeko moduak egiten dio. Baina tradizioa zer da? Txalaparta berez, ohol bat bakarra da, lodiagoa, zabalagoa, eta hiru metrokoa. Jotzeko makilak ere, 70 zentimetrokoak. Era tradizionala, txakuna da, erritmo itxia. Baina orain erritmo irekia jotzen da. Zortzi oholekin jotzen

dena txalaparta da. Baina bidoi bat aldamenen sartzen badugu, hori perkusioa da. Txalaparta instrumentuari berari esaten diogu, baina bere izena ez da hori, txalaparta azken batean, musika estiloa da.

Trikitrixarekin ere berdina gertatzen da. Berez, akordeoi diotonikoa da; eta trikitrixa jotzeko estiloa bera da. Trikitixa, hitza panderoaren hotsaren onomatopeietik dator.

Txalaparta berez, 3 metroko ohol bat, bi saski gainean jarrita, eta makila luzeagoak. Belaunetik pixka bat goraxeago jartzen da. Makilak ere horregatik izaten ziren luzeagoak. Txalaparta, sagardo langintzatik dator. Uste denez, sagar jotzeko jokotik dator txalaparta. Sagarrak jotzen zituzten pisiarekin, eta dolarea saga-

rra prentsatzeko oholetik dator. Horixe da txalaparta. Hortik aurrerako guztia, abiada handian jotzea... hori perkusioa da.

Ironikoa iruditzen zait, norbaitek esatea, tuboak jarri eta hori ez dela txalaparta. Lauzpabost oholekin jotzen dena ere ez da txalaparta. Tradizioa bagoaz, txalaparta, ohol bakarra da.

Guk 13 ohol erabiltzen ditugu, eta melodiak jotzen ditugu. Eta hori ere txalaparta deitzen zaio, estiloa delako. Bi lagunetan artean jotzen den estiloa da. Esentzia mantendu egiten da. Bi denboratan jotzen da. Bakoiak bere zatia dauka, eta besteak segitu egiten dio. Inprobisatzen dugunean ere berdina da. Batak proposatu egiten du eta besteak jarraitu egiten dio.

Trikitrixarekin ere berdina

gertatzen da. Gertatu izan zait, trikitria jotzera joan eta adibidez, Ken 7 taldearen kantu bat jotzea eta betiko trikitilari horietariko bat etorri eta pieza natural bat jotzeko eskatzea, pasadoblea edo. Oso ironikoa iruditzen zait hori. Azkenean tradizioa egin egiten da. Panderoa Galiziakoa da eta trikitixa Italiakoa. Hona etorri zenean, txistuko eta albokako erreperitorioa trikititrixara moldatu zuten. Eta trikititrixa tradizionala dela esan dezakegu. Txalapartarekin ere berdina gertatu daiteke. Orain egiten ari garen hau, hemendik 20 urtera tradizionala izango da.

Kritika moduko bat al dago bada?

Bai. Nik ez dakit azkenean kritika hori zergatik den. Gaitasun faltagatik ez da, mentalitate kontua da. Ezin dena egin da, zaharra ahaztu. Baina denok zaharra jotzen arituko bagina ere...

Trikitriaren berrikuntzaren adibidetariko bat Kepa Junkera da.

Berritzailea dena beti kritikatu izango da. Baina kasu honetan, batez ere Kepa Junkera eta Joseba Tapiagatik ez balitz, trikititrixarik ez zen kanpoan ezagutuko. Musika munduan dabilenak badaki instrumentu hori Euskal Herrikoa dela, Euskal Herrian jotzeko estiloa daukala. Finlandiarrei, italiarrei, irlandarrei entzun, eta oso ezberdina da.

Txalaparta zabaltzen ari da, modan dagoela dirudi. Trikitixarekin gertatu zena gertatzen ari da txalapartan ere?

Ezberdina da. Trikitrixa etxeetan sartu da asko. Umeei gustatu zaie, Gozategiren-eta garaian boom-a eduki zuen. Izugarritzko igorera eduki zuen. Gero pixka bat jaitsi egin zen eta orain mantendu egiten da. Azkeneko bi urteotan gainera, berriz ere igo egin dela esan daiteke.

Txalaparta ezberdina da.

Orain jende pilo bat ari da ikasten. Baina ez da instrumentu solista bat. Orain, laguntzeko erabiltzen da txalaparta. Boom-a badauka baina ez da trikititrixa bezala. Oraindik bereziagoa da. Euskaldunon nortasuna oraindik ere askoz ere sakonagoa da.

Trikitrixa italiarrek eka- rri omen zuten Zegama- ra.

Bai. Baina txalaparta bezalako instrumenturik ez dago beste inon. Antzekoak bai, baina jotzeko modu hori hemengo da. Afrikan badaude antzeko instrumentuak baina ez dira berdinak. Horrek ematen dio oraindik ere nortasun gehiago txalapartari. Txistuak, albokak, trikitrixak... horrelako instrumentu asko daude, baina txalaparta ez. Oso geurea da.

Txalaparta jotzerakoan lagunarekin ondo konpe- netratzea garrantzitsua izango da, ezta?

Ez txalaparta jotzeko bakarrik, denean da garrantzitsua.

Inprobisatu egiten duzue, ala konposizioak dauzka- zue?

Entsaiatzeko oso denbora gutxi daukagu. Inprobisatzen nahi duzun denbora guztia aritu zaitezke. Jotzen ari dena ez da aspertuko baina entzuten ari dena bai. Ahal den entretenigarria izan behar da. Emanaldietan, txalaparta tradizionala, melodikoa, espektakularra goa, ... Joaldietan, kantuak, bi ikasitakoak izaten dira, eta beste bat inprobisatua.

Txalaparta kontzertuak eskaintzen al dira?

Txalaparta kontzertuetan, txalaparta soilik baino gehiago gustatzen zait beste musika bat ere tartean sartzea. Oso dinamikoa eta aldaketa askorekin izan behar du. Zorabiok-ekin hainbat proba egin ditut.

Trikititrixa ala txalaparta duzu nahiago?

Biak behar ditut.



Trikizio eta Zeru

1998. urtean sortu zen Trikizio taldea. Osasun onean dago taldea, duela urtebete, taldekideen artean aldaketak izan baziren ere. Aurten 90 kontzertu eman ditugu Trikizioarekin. Asteburu bakar bat ere ez dut libre eduki. Baina oso gustura nago Trikizion. Oso jende profesionala dago taldean. Aurten urte berezia izan da. Azkena, Kilometroak jaian egon ginen eta gauean Zallan". Europako herrialde ezberdinetan ere ibiltzen da.

Trikizio taldeaz gain, bete musika talde bat ere sortua du zegamarrak: Zeru. Berak konposatutako abestiak jotzen dituzte bertan. "Trikizioarekin Kataluniara joaten hasi ginen, erreparoa ematen zidan, Trikizioarekin bertsioak jotzen baititugu. Orduan, folk talde bat sortu nuen, nik sortutako abestiak jotzeko. Talde hori izan da nolabait, eksklusiboki, Katalunian jotzeko sortua. Hemen ere bi kontzertu eman ditugu. Lau bat urte ditu taldeak. Oso gustura nago".

"6-7 orduan abesti bakar bat ere errepikatu gabe jotzeko gai gara"

Xabier Arakamak konplexua eduki izan du, beraien jardunean, beste musika taldeen abestien bertsioak jotzen dituztelako. Gaur egun, konplexu hori gaintutua du. "Dantzaldi talde bat gara, baina bertsioak jotzea, askotan paloa ematen zidan. Baina azken finean, norberaren estiloa hor dago eta hori da garrantzitsua. Askotan berbena taldeak kritikatu izan dira, baina ez da erraza. Azken finean, errazena da, norberaren 15 kanta eduki eta ordu eta laurdeneko kontzertu bat ematea. Berbena taldeek 4-5 ordu jotzen dute eta aurreiritziak daude. Denok ezagutzen dugun abesti bat, ondo jo behar da, bestela... beraz, ez dakit zer den errazagoa. Batak besteari ez dio ezer kendu behar, bakoitzak bere meritua dauka. Orain oso ondo eta oso gustura sentitzen naiz. Guk gaitasuna daukagu 6-7 ordu jotzeko, abesti bakar bat ere errepikatu gabe. Bakoitzak bere meritua dauka".

Diskorik ez dute grabatu oraindik Trikizioarekin. "Ez dut grabaziorik egin nahi. Kantu berriak ez ditut egin nahi. Kantu berriak egin daitezke baina ez dut uste euskal kulturari ezer berririk aportatuko niokenik. Beste alde batetik, gaur egun diskoa grabatzea ez da txantxetako gauza. Promozionatzeko? Nahikoa badaukagu, gehiegi ere jotzen dugu. Grabatzekotan grabatuko genuke, taldea desagertuko balitz, eta konstantzia uzteko".

Bizkaia, dantzaldien paradisua

Plazetan gero eta jende gutxiagok dantza egiten duela esaten da baina oraindik ere badaude, plaza biziak. "Bizkaian gozamina da. Berbenen paradisua da Bizkaia. Guk gure burua ere ez daukagu berbenero bezala. Gehiago gara bertsio talde bat. Bizkaian asko ibili gara, eta Katalunian ere bai. Kataluniara txalaparta eramaten dugu asko gustatzen zaie eta. Euskal kanta asko ezagutzen dituzte Katalunian, harrigarria da. Calellan karpa handi batean jo genuen eta izugarria izan zen".

Gipuzkoan aldiz, kontrakoa gertatzen da. "Ni ere horrelakoa naiz, plazara joaten naitenezan begira bakarrik egoten naiz. Lehen Nafarroan ere asko ibiltzen ginen, orain gutxiago. Nafarroan aldatu da, lehen jende gehiagok egiten zuen dantza".



Jokin Telleria: “pinturatik bizitzea loteritxoa da”

B easainen bizi den ataundarrak urte asko daramatza pintura munduan. Estilo klasikoari eutsiz, inguruko paisaiak eta erretratuak irudikatzen ditu koadroetan. Bolada onean dago gainera azkenaldian, sari bat baino gehiago lortu

baititu. Beasainen Arrano Elkarteak antolatzen duen Aire Libreko pintura lehiaketaren arima ere bada. Urriaren 22an izango da aurten 15. edizioa. Herrian pintura zaletasuna bultzatzen eta erakusten saiatzen da Jokin Telleria.

berriz

AMAYA ARZUAGA
MIRIAN OCARIZ
ISABEL MARANT
PAUL & JOE
HOSS
MISS SIXTY

FRENCH CONNECTION
DIESEL
FOR ALL MANKIND
ANTIK BATIK
EARL JEANS
SCOOTER

BEASAIN

DONOSTIA

Tel.:
943 887 048

Faxa:
943 882 801

Telleri z/g

ORMAIZTEGI



OSINALDE KARROZERIA

Hamabost urte beteko ditu Beasaingo Arrano El-karteak antolatzen duen Aire Libreko pintura lehiaketak. Nolatan sortu zenuten?

Ez da hemen asmatutako gauza bat. Beste herri batzutan 100 urte bete dituzten lehiaketak ere badaude. Pentsatu genuen hemen ere horrelako zerbait egin zitekeela. Nahiko ondo ateraz zen lehenengo urtea eta bigarren urtean ateak zabalagoak izan genituen laguntza aldetik. Udaletxearentzako gauza berria zen eta lehenengo urtean ondo joan zela ikusi zuten, herrian giroa sortu zela eta erakusketak ere nahikoa maila altuko izan zela. Orduan pentsatu zuten Udazken Kulturaren barruan sartzea.

Zu ordurako herriz herri ibiltzen al zinen pintura lehiaketetan?

Oraindik ere hor jarraitzen dugu. Niretzat oso interesgarria da. Norberak daukan grina hori lantzeko, ea gai naizen, ordu mugatu batzuetan lan bat egiteko, hobetzen joateko... bat-batean egiten den gauza bat da, pentsatzeko ere ez da denbora handirik izaten. Egun batzutarra lana ikusi eta beste era batera zergatik ez ote nuen egin pentsatzen duzu, bai orduan eta bai gaur egun ere. Suposatzen da hainbeste urteren ondoren gutxiago gertatzen dela, baina orain ere gertatzen da. Ez nuke parekatu nahi baina, bertsolari bati ere bertso txar bat aterako zaio nahiz eta bertsolari on izan.


Bote prontoko lan hori aberasgarria da beraz pintore batentzat.

Denborarekin mugatuta

Klasikoari eutsiz

Pintura klasikoa, figuratiboa, egiten du Jokin Telleria beasaindarrak. Paisaiak, erretratuak, bodegoiak... margotzen ditu, asko enkarguz, nahiz eta jakin badakien estilo klasikoa gaur egungo modaren aurka doala.

Azkenaldian enkarguz egin dituen lanik gehienak, erretratuak dira. "Niri figura pintatzea asko gustatzen zait, baina erretratuak izugarritzko beldurra ematen dit. Oso zaila da pertsona bat gustura gelditzea bere buruarekin. Zuk modu batera ikusten duzu, bere ingurukoek beste era batera, eta norberak bere burua agian beste modu batera ikusten du. Orduan horiek denak margo batean lotzea oso zaila da. Erretratu gehienak argazkitik egiten ditut, normalean ezustekoa eman nahi izaten delako. Askotan argazkiak nahiko kaxkarrak izaten dira. Pertsona hori ezagutzen duzun ala ez, asko esan nahi du. Ezagutzen baduzu, bere jestoak ezagutzen dituzu eta horrek ere asko laguntzen du", argitu du Telleriak.



Oleoa erabiltzen du batez ere, baina textura ere gustatzen zaio eta beste teknika batzuk erabiltzen hasia da tarteka, klasikotik pixkatxo bat urrunduz. Telleriak adierazi duenez, "ez zait gustatzen motibo berdina errepikatzea, nola eta ez den berrikuntza batekin. Espreski, bi lan egin nituen: motibo berdin-berdina, eta erabat desberdin landuta. Bat oso klasikoa egin nuen eta beste nahikoa modernoa. Batzuri bat eta besteei bestea gustatzen zitzaizen. Lehiaketa batera aurkeztu nituen. Biak gustatu zitzaizkien baina klasikoari eman zioten saria". Bitxiak bat kontatu digu gai horren harira: "Nik ezagutu nuen margolari bat, nahiko gazte hil zen. Bera klasikoa zen, oso itxia, eta epaimahaiaren egoten zenean, eta ikusten bazuen beste epaimahaikoak modernora joaten zirela, zera galdetzen zien: zuk etxera zein koadro eramango zenuke? Hura. Eta hura eramango bazenu zergatik ematen diozu saria beste harri, modagatik, berrikuntza gehiagotatik? Ba zure etxera koadro hura eramango bazenu, zuretzako koadrorik onena hura da".

Galerietako erakusketak

Irungo galeria baterako erakusketa prestatzen ari da egunotan. Irun inguruko paisaiak margotzen ari da. "Salmentari begira, han inguruko gaiak margotzeko aholkatu zidaten, inguruan ingurukoa saltzen baita. Ezertxo ere esaten ez didan gaia balitz, agian ez nukeen egingo baina asko gustatzen zait Hondarribi inguru hori", dio Telleriak. Erronka ere izaten da pintore batentzat, galerietarako erakusketak prestatu eta koadroak salduak izatea. "Hasteko, margotik bizitzea loteritxo bat da. Eta galeria batera, zure gustuko lana eraman, eta saltzea, hori izugarria da".

Arte edo pintura erosleez galdetuta, zera erantzun digu Beasainen bizi den ataundarrak: "gauza orokorrean nahiko geldi dago. Pintura, beharrezkoa ez den gauza bat denez, zailagoa da saltzeko. Baina bat eta beste, aurten ondo moldatu naiz".



Tel. eta Faxe: 943 886 558
Poltsikoko tel.: 616 698 288
Zubi-Erreka Industrialdea, 42
LAZKAO
toldosagustin.com
auxkin@toldosagustin.euskalnet.net



N-1 errepidea
lurre auzoa
OLABERRIA
943 88 43 01



12 urterekin aurrenekoa

Pintura munduan noiz eta nolatan hasi zinen?

12 urterekin lehiaketa batean parte hartu nuen Ordizian eta lehenengo saria eman zidaten. Horrek izugarritzko animoa eman zidan. Ordurako ere, marrazkiak egiten nituen, baina hain sakon pentsatu gabe. Harrezkero jarraitzen hasi nintzen, ikasten hasi nintzen akademia batean... 12 urtetik hasi eta gaur arte.

Gogoratzen al zara Ordiziako marrazki lehiaketan zer margotu zenuen?

Bai, oso ondo gainera. Garagartza plaza margotu nuen, iturri borobila, zuhaitzak... Nonbaitean gordeta daukat, ez bere balio artistikoagatik baina sentimentalki bai.

Pinturatik bizitzea lortu duzu, ezta?

Beno, ez nuke esango baiezkorik, baina ezta ezezkorik ere. Nire munduan bizi naiz eta hori niretzako oso aberasgarria da. Niretzat, gaur egun izan daitekeen saririk handintxoena izango da, norberaren gustuko lana izatea ogibidea. Eskolak direla, koadroak saltzea, denda... Beno, denda da gutxiena gustatzen zaidana eta ez da hainbeste jende gerturatzen pintura mundura. Eskolak ematek eta koadroak saltzetik bizi naiz eta alde horretatik zorionsu sentitzen naiz.

Denda ireki aurretik, fabrian lan egiten zenuen.

Bai, 20 urtetik gora egin nituen enpresa batean, berez fresadore bezala lan egiten nuen. Baina itxi egin zen eta ez dakit ixte hura niretzako zoriona ala zorigaitza izan zen. Gaurko egunean esan dezaket, kasi-kasi, zoriona izan zela. Itxi ez balitz, seguraski ez nintzatekeen ausartuko horrelako enbajada batean sartzea. Lana uzterako pintura klaseak ematen nituen baina ordu gutxi. Baina ez nituen pintatzen hainbeste ordu sartzen. Orain ere nahi baino gutxiago pintatzen dut.

zaude eta behartzen zara ahal den egokiena egitera. Eskola agian ez nuke esango, baina aberasgarria da: lana azkar egitea lortzen duzu, inguruan dabilen jendea ezagutzen duzu, iritziak elkartrukatu... Beste lehiaketa batzuk ere izaten dira, denborarekin egindako lanak aurkeztu behar izaten direna. Suposatzen da, maila handiagoa izaten dela. Baina aire libreko pintura lehiaketetan jende profesionalak parte hartzen dutela. Giroa gustatzen zaigulako ere bai. Beasainen bazkaria ematen zaie parte hartzailei eta girotxoa sortzen da, tertuliatxoan, aholkutxoak ematen dira, iritziak egoten dira.

Ni ere joaten naiz sariak oso handiak diren lehiaketetara. Burgos hirian adibidez, 6.000 euroko saria egoten da, egun bakarreko saioarentzako sari handia da. Orduan, oso jende ona joaten da. Horrelako lehiaketa batean aukeratua izatea bakarrik, sari bat bezala da, pozgarria. Termometroa bezala ere bada, non zauden jakiteko, zure lana jendeari gustatzen zaion ikusteko. Askotan saria eramateak ez du esan nahi zure lana bestearena baino hobea denik. Baina saria eman badizue, esan nahi du, zure la-

nean fijatu egin direla, deigarria egin zaiela.

Herriak eta txokoak ezagutuko dituzu lehiaketei esker.

Bestela Euskal Herria ez genukeen asko ezagutuko! Lehen ez nuen jakiten lehiaketa asko noiz eta non ziren, baina orain internetari esker informazio hori jasotzen dut.

Lehen sariak ez zenituela lortzen esan duzu. Orain bolada onean zaude.

Lehen noizbehinka lortzen nuen sariren bat. Hasieran 20 urte artekoen lehiaketan parte hartzen nuen. Baina gero 20 urteko muga pasatuta, eta adinik ez dagoenean, zaila izaten da. Nire maila urruti gelditzen zen baina pixkanaka-pixkanaka ikasten joaten zara, besteek zer egiten duten ikusten duzu, zer hobetu daitekeen ikusi... saiatu behintzat egiten zara. Sariarena dena den, loteritxo bat bezala da. Zuk lan mota bat egiten duzu eta epaimahaiari zure lana gustatu liezaioke ala ez, baina ez du esan nahi onena denik. Lasterketa batean, aurrena iristen dena onena izango da, baina pinturan, jende kopuru baten iritzia da.

Aurten irabazi dituzun sariren bat aipatzeko?

Jende gehienak jakin du

Orokorrean, jendea nahiko moderno aldera joaten da. Ez dakit benetan gustatzen zaielako edo modan dagoelako den.

ARRIETA

JATE TXEA

Ezkontzak, jaunartzeak, bataioak...

era guztietako ospakizunak

☎ 943 88 00 02

OLABERRIA

Deban lehenengo saria irabazi nuela. Baina niretzat ez da garrantzitsuenaren izan. Deban larunbatean irabazi nuen eta hurrengo egunean, Artziniegan ere lehenengo saria eman zidaten. Ispastarren bigarren saria, Ortuellan hirugarren saria, Burgosko herri batean beste hirugarren sari bat... Lana entregatzeko lehiaketetan, eta niretzat garrantzia handia dauka, Burgosko Frias herrian, bigarren saria eman didate. Garrantzia handikoa da niretzat: etxean egindako lan bat aurkeztu behar duzu. Beraz, askoz ere gehiago landutakoa izaten da, beste era batekoa.

Hainbeste sari jasotzeak zer esan nahi du, jendea-ri zure pintura gustatzen zaiola?

Suposatzen da zerbait ikasi egin dudala. Gustuen kontuari dagokionez, ni pixka bat gustuen kontra nabil. Nire lan klasikoarekin nahikoa finko mantentzen naiz oraindik. Hautsi nahi dut, baina ez hauste hutsagatik, nire barruak eskatu behar dit. Baina hala ere, nahiko lan klasikoa da nirea eta zentzu horretan pixka bat atzeratuta gelditzen ari naiz. Orokorrean, jendea nahiko moderno aldera joaten da. Ez dakit benetan gustatzen zaielako den edo modan dagoelako. Nire ustez, klasiko bat saritzen denean, nahikoa maila ona dagoela esan nahi du, beste lanak modan badaude eta klasikoa saritzea, bestela ez dira fijatzen. Lehiaketa batzuetan, epaimahaia bera ere klasikoagoa izaten da eta horrek asko esan nahi du.

Egunero zerbait ikasten den ofizioa da beraz pintura ere.

Sekula ikasten ez den gauza bat da. Eta zorionez! Bestela, behin dena ikasiz gero, zerk motibatzen zaitu aurrera jarraitzea, ez badaukazu berrikuntzarik ikusten.

“Txindoki eta Aizkorri margotu ditut gehien”

Gehien margotu duzun paisaia?

Pentsatuko duzue: Txindoki, eta Aizkorri ere bai. Beti saiatzen naiz leku ezberdinetatik margotzen. Ez dut uste sekula leku beretik margotuko nuenik.

Erosleak ere Txindokizaleak al dira?

Egindakoak baino dezentez gehiago salduko nituzkeen. Jendea etortzen da Txindokiren koadro eske baina askotan ez dut edukitzen.

Mendi aldea edo itsaso aldea gustatzen zaizu gehiago?

Itsasoa asko gustatzen zait. Espresio ezberdin asko ditu, olatuen mugimendua.. Itsasoan, ezinezkoa da, nahita ere bi koadro berdin margotzea, nahiz eta puntu berdin-berdinean jarri. Eguraldia izugarri aldatzen da, itsasoa mugituagoa edo bareagoa dagoela... Mendia ere gustatzen zait. Udazkena, udazkeneko basoa... baina gehienbat itsasoa gustatzen zait. Itsasoa daukan herri bateko lehiaketa batera joaten banaiz, ia beti, itsasoa margotzen dut.

Beasaingo pintura lehiaketan zein txoko margo-tuko zenuke?

Lehiaketan ez dut parte hartu baina badauzkat lehiaketatik kanpo margo-tutako txokoak: Telefonika-ko aldapa, Anbulatorio ingurua atzean Txindoki ikusten dela, Igartza... Lehenengo edizioetan, Loizazko San Martin plaza, kanpotik etortzen zirenek gehienek margotzen zutena izaten zen. Beasainek paisaje urbanoko oso txoko politak ditu, beste herri batzuk baino gehiago. Ez dut esango Beasain margotzeko herririk politena denik, baina polita da. Auzoak eta mendialdea ere baditu, Garin, Arriaran, Astigarreta, Mantxinbenta...




Bukatu gabe koadro asko utzi al dituzu?

Batzuk bai. Tapatu ere bai. Lehen esan dudan bezala, textura gustatzen zait eta koadro bat tapatzen denean, azpian gelditzen den koadroak oso textura aberasgarria izaten du. Arraspatu eta koadro zaharraren koloreak ikusten dira eta polita da.

Materiala aprobetxatzen duzu beraz.

Geroz eta gutxiago. Nahiko kezagarria da, ez dakizulako zenbaiterainoko konpatibilitatea daukaten koloreek. Beste kolore batean koadro bat margotuz gero, gertatu liteke azpikoa altxatzea edo bata bestearekin gorputz bat ez egitea. Arriskutsu samarra da. Gaur egun pintoreek oso gutxi edukitzen dute kontuan, baina sorpresak izan dira eta izango dira. Gertatu izan zaio punta-puntan da-

bilen pintore bati, erakusketan zeuzkan pintura koadroetako altxatzea. Gaur egun ez da kontuan hartzen baina garai batean pintoreak kimikoak, fisikoak ziren. Haiek bazekiten ze kolore nahastu behar ziren... Kolore batzuk beraien artean ez dira konpatibleak, eta zartatzea. Kolo-reena beste mundu bat da. **Gustoen gelditu zaren koadrorik ba al daukazu?** Ez, beti zerbait ikusten dut hobetzeko. Batzuekin nahiko gustura gelditzen zara baina handik egun batzutarra ikusi eta akatsak ikusten dituzu. Borroka bat da. Batzuk ikutu egiten ditut. Bodegoi klasiko-klasiko bat badaukat. Niretzat berezia da, ez koadrorik onena delako, baizik eta detaile guztiak kontuan hartuz egin nuelako. Ariketa bezala egin nuen eta momentuz ez dut salgai jarri.



Goierri

Sustraiez Blai

Urriaren 23tik azaroaren 3ra

Argazki-erakusketa, Dizibiren eskutik, 'Kaleen Mintzoa' (graffiten argazkiak). Ormaiztegiko udaletxeko behealdean. 9:00etatik 13:00etara eta 17:00etatik 19:00etara. Sarrera doan.

Urriak 25, asteazkena:

Hitzaldia: Agustin Unzurrunzaga (SOS Arrazakeria), Gaur egun pil-pilean dagoen etorkinen gaia jorratu nahi da, baina ikuspegi baikor batetik. Ormaiztegiko udaletxeko behealdean, 19:30ean. Sarrera doan.

Urriak 26, osteguna:

Film-emanaldia: Raul de la Fuenteren Nömadak TX. Usurbe Antzokia, Beasain, 21:00etan. Sarrera: 3,5 euro.

Urriak 27, ostirala:

Musika-emanaldia: Briganthya taldea, Beasaingo Plazan, 22:30etan. Sarrera doan.

Urriak 28, larunbata:

Musika-emanaldia: Asian Dub Foundation Sound System (DJ Set) (Londres), Big Youth (Jamaika), Zorabiok (Euskal Herria) eta Javi P3Z DJ (Euskal Herria), Ordiziako Jakintza ikastolan, 21:00etan. Sarrera: 15 euro.

Jaialdiaren egunik garrantzitsuenan, Euskal Herriko eta mundu osoko musika-motak uztartuko dira, mugarik ez dagoela erakutsiz.

Asian Dub Foundation Londreseko kolektibo ezauna da, hamar urtetik gora daramatzana muga artistiko guztiak apurtuz, disko zein emanaldi ikusgarriak eginez. Punka, duba, ragga, ragga, popa... talde honen musika atmosferikoa da eta zuzenean doa aurpegira, hunkigarria da, topikoak hausten ditu eta erantzunak bilatzen ditu, beste batzuk irtenbide errazen bila joan diren bitartean. Oso album garrantzitsuak kaleratu dituzte; besteak beste: "Facs And Fictions" (1996), "R.A.F.I." (1997), "Community Music" (2000) edota bere lanik berriena, "TANK" (2005).

Big Youth jamaikar artista goi mailako estilo-berri-tzaile aparta du. Ghettoaren benetako sentimenduen ordezkari, Big Youthek DJen saioetarako estandar berriak eta maila handikoak sortu zituen, gai kulturalak eta baikorrak erabiliz. Beste produktore batzuentzat lan eskerga egiten zuen bitartean, bere kasa egindako lanak are hobeak izan ziren. Azken urteotan disko gutxi argitaratu ditu eta oso gutxitan aritu da zuzenean, horregatik izango da hain berezia bere ekitaldia.

Zorabiok talde euskaldunaren musikak txalaparta du oinarri, baina programazio elektronikoak ere nahasten ditu. Bere zuzeneko emanaldia paregabea da, kapoeira eta akrobazien koreografia berezia eskaintzen baitu. Bertako kide da Xabier Arakama zegamarra.

Javi P3Z DJ 2005eko jaialdian bere orkestraren emanaldiaz gozatzeko parada izan genuen. Aurren, berri, orkestrako buru denak DJ gisara lan egingo du.

Harpidetza txartela

Egin ☒ bat aukeratutako kaxan ☐

☐ Goierri ☒ hitza + ☐ hitza 65 euro

Urteko kuotak:

☐ Goierri 24 euro

☐ hitza 60 euro

Izen-abizenak:

Helbidea:

Herria: NAN:

Telefono zenbakiak:

Kontu zenbakia(20 digitu):

Bidali txartel hau: Goierritarra, Urbialde plaza 7 behe, Beasain

Iñauti
Hartz Klinika
ESTIBALIZ JUAREZ ALDANONDO
602 Zbki. KOLEGIATUA

RADIOGRAFI PANORAMIKO ETA ZEFALOMETRIAK
ODONTOLOGIA OROKORRA: HAUR ETA HELDUAK

JOAN ITURRALDE, 3 BEASAIN
☎ 943 88 46 28

MUJIKA
LIBURUDENDA

Tel. / faxa: 943 88 11 94
Kale Nagusia, 19 ORDIZIA

Beasain

Udazken kulturala

Urriak 20, ostirala:

18:30etan: Erraldoi eta Kilikien irteera txistulariek lagunduta.

22:30etan: Bertsolarien saioa Usurbe Antzokian: Aitor Sarriegi, Iñaki Apalategi, Igor Elortza, Jon Maia, Amets Arzallus eta Maialen Lujanbio. Gai-jartzailea: Igor Egueren.

Urriak 21, larunbata:

11:00etan: Antzinako motorren 2. erakusketa, Igartza Oletan.

17:30etan: Kukubiltxo taldeak 'Kukubel 2.0' ikuskizuna eskainiko du, Gernika pasealekuko frontoian. (Euria eginez gero Ezkierdi frontoian).

Urriak 22, igandea:

08:00etan: Mendi-irteera: Gipuzkoako Finalisten Eguna ospatzera Oiartzunera.

09:00etan: XV. Aire Zabaleko pintura-lehiaketari hasiera emango zaio.

09:00etan: Beasaingo XV. Argazki-rallya.

11:00etan: Antzinako motorren 2. erakusketa, Igartza Oletan.

13:30etan: XV. Aire zabaleko pintura lehiaketako lanen aurkezpena, Usurbe Antzokiko Erakusketa aretoan.

18:00etan: Beasaingo XV. Argazki-rallyko lanen aurkezpena, Urbieta Arte Plastikoetako zentroan.

18:30etan: XV. Aire zabaleko pintura-lehiaketako sari-banaketa, Usurbe Antzokiko Erakusketa aretoan.

19:00etan: 'Bilbao Brass Band' taldearen kalejira herriko kaleetan zehar.

Urriak 26, osteguna:

21:00etan: 'Nömadak TX' filma, Usurbe Antzokian.

Urriak 27, ostirala:

18:30etan: Erraldoi eta kilikien irteera, txistulariekin.

22:30etan: Brigantzia taldearen kontzertua Loinazko San Martin plazan.

Zaldibia

Ardiki eguna

Urriak 29, igandea:

10:30etan: Diana, herriko txistulari, Juan Mari Beltrannen Musika Eskolako albokalari, dultzainero eta Xapre eta Furriela trikitilariak alaiturik.

Goizean zehar: Artisautza erakusketa. Ardi gazta, artilezko galtzerdi edo mondejuak egiten. Linua lantzen, telarra... Ganadu erakusketa, ardi eta ahari loteak, pottokak. Salmenta azoka.

12:00etan: XII. Mondeju Lehiaketa eta IX. Gazta lehiaketa Andoni Egaña eta Amets Arzallus bertsolariekin batera plazan mondeju pintxoak dastatu ahal izango dira.

13:30etan: Sari banaketa.

14:30etan: Bazkaria, herriko jatetxeetan (mondejua, ardikia saltsan, ardikia erreta piparrekin, gazta, ardoa, kafea, kopa eta purua 20 euro). Bazkari txartelak herriko jatetxeetan daude salgai.

17:30etan: Lagunarteko kalejira.

Urriak 28, larunbata:

17:00etan: Gorringo taldeak 'Joxepi dendaria' ikuskizuna eskainiko du, Usurbe Antzokian.

19:00etan: Goierriko txistularien kalejira.

19:30etan: Txistu-kontzertua Goierriko txistulariekin.

Urriak 29, igandea:

08:00etan: Mendi-irteera: helduen martxa.

10:00etan: Extremadurako eskulan eta artisautza erakusketaren hasiera, Loinazko San Martin plazan.


12:00etan: 'Sones de Extremadura' taldearen kantaldia, Loinazko San Martin plazan.

12:00etan: Pintura-tailerra, Joan Iturralde plazan.

18:00etan: 'Sones de Extremadura' taldearen kantaldia, Loinazko San Martin plazan.

Azaroak 1, asteazkena:

19:00etan: 'Cardinal Singers' abesbatzaren kontzertua, Andre Mari Zeruratuaren Parrokan.



©-Faxa: 943 88 95 76 Urdaneta, 41 ORDIZIA



ERREFORMAK

- ✦ Tximini eta ekonomikak
- ✦ Berogailuak
- ✦ Iturgintza
- ✦ Zeramika erakusketa
- ✦ Bainuko altzariak

SOLOZABAL AUTO-ESKOLA

Mota guztietako
gida-baimenak

Aita Urdaneta

ORDIZIA

☎ 943 88 72 76

LANA

eskaerak

Gaztelekuan asteburuan ari-
tzeko hezitzailea behar da. Be-
harrezkoa begirale titulua eta
EGA. 616806387.

Ileapaintzailea behar da Ale-
gi aldean. 617546690.

Pertsona bat Lazkaoko ta-
berna baterako behar da egun
erdiz lan egiteko. 635747377.

Lazkaoko taberna batean
sukaldaria behar da.
685735651.

eskaintzak

Sukaldari laguntzaile bezala
lan egingo nuke. 664266989.

Umeak edo adinekoak
zaindu edota garbiketa lanak
egiteko prest nago.
630174103.

ETXEBIZITZAK

salgai

Beasainen, Nafarroa Etorbi-
dean, etxebizitza salgai.
943085246.

Beasainen, etxebizitza salgai.
943027073 - 680238512.

Beasainen, erdigunean, etxea
salgai. Sukaldea, egongela, bi
logela eta komuna. Oso egoe-
ra onean. Garajea ere auke-
ran. 645705287.

errentan eman

Urretxun pisua alokatzen
da. 635714580.

errentan hartu

Ormaiztegin pisua alokatu
nahi dut. Sandra. 616580253.

logela

Lazkaon, logela alokatzen
dut elkarbanatutako pisu ba-
tean. 678228031.

IBILGAILUAK

salgai

Ford Fiesta 1.1 salgai. 1990.
urtekoa. Oso egoera onean.
Oso merke. Garajea gordeta
egoten da. 636620182 -
943884535.

ANIMALIAK

opari

Poniak salgai. Arrak eta eme-
ak. 636908697.

BESTELAKOAK

salgai

Solarium bertikala salgai.
1.200 euro. Egoera oso one-
an. 943883180.

Iragarki laburrak:

Hitz bakoitzeko 0,60 euro

Iragarkia bi aldiz argitaratuko da
Goierritarran, behin Goierriko Hitzan
eta 7 egunez egongo da
www.goierrikohitza.info webgunean.

Harremanetarako:

943 88 96 12

goierritarra@goierrikohitza.info

gh@goierrikohitza.info



Tel.: 943 161 277 Faxa: 943 160 933
Nafarroa Etorbidea, 27
BEASAIN

Tailerra:
Okorro, 6
ORDIZIA

"Eguneroko ogia, ogi bereziak eta pastel ezin hobekak"



K. Nagusia 35 BEASAIN

☎ 943 88 77 58

Elosegi, 14 LAZKAO

☎ 943 88 72 79

Sta. Maria, 19 ORDIZIA

☎ 943 16 00 44

Zeure etxea dekoratzeko biderik laburrena

ibai ondo

barne diseinua
dekorazioa

Garai berrietarako
ideia berriak

Katea 5, Antzizar auzoa
Tel.: 943 16 40 40
BEASAIN

IÑAKI ARIN Aseguruak



☎ 943 888 702

Oriako Pasealekua, 20

BEASAIN

sunadendabi
zitzaEtxealstr
ipuakAurrezk
iaAutomobila
OsasunaDend
aEgunekoBaj
alstripuakAur
rezkiaAutom

Badago zure **BEIRA-PLAKAK**
babesteko modu errazago bat.

"Hirugarrenetako Ohena" edo goragoko modalitatean urriaren 1etik azaroaren 30era bitartean LAGUN AROren kontratazio-arauen arabera kontratatzen diren turismo berrientzat balio du. Ezin da meiatu beste sustapenekin.

Beirak haustearen
estaldura **DOAN**

Informa zaitez:

- zure sukurtsalean
- zure ohiko bitartekariarengan
- 902 38 08 38 zenbakian

 **LAGUN ARO**
SEGUROS - ASEGURUAK

Beti zugan pentsatzen



Ormaiztegi eskolaumeak 1927. urtean

Atzeko ilaran, ezkerretik eskuinera: Gregorio Irizar, Ramon Ezkurdia, Tiburtzio Maritxalar, Inazio Lasa (Zelae-ta), Periko Zaldúa (Agerre, 1936ko gerran hila), Eduardo Iturbe, Martin (Arizmendiko morroia), Nikolas Gurrutxa-ga, Pako Baztarrika eta Tomas Zeberio (Lapatza errota).

Bigarren ilaran: Alejandro Guerra, Xabin Ezkurdia, Jose Luis Mendizabal (1936ko gerran desagertua), Tomax Eskisabel, Pedro Joxe Eskisabel, Joxe Intxausti (Pitxarrardo), Juan Kruz Irizar Salazar (1936ko gerran hila), Florentzio Azurmendi, Joxe Migel Zufiaurre (Aranguren), Joxe Albisu (Ugarte 1936ko gerran desagertua), Txomin Maritxalar eta irakaslea (inerinoa).

Hirugarren ilaran: Juan Zufiaurre (Igara), Jose Luis Borde, Juanito Azpiazu, Julen Arzelus, Jose Ramon Lasa, Sebastian Mendizabal, Martzial Guerra, Inazio Merzero (Txiki), Esteban Sagarna (1936ko gerran desagertua), Joxe Goia (Santesteban, Gabiria), Joxe Gurrutxaga eta Pako Legaz (geltokiko faktorearen semea).

Lurrean eserita: Ezezaguna, Guillermo Azpiazu, Pedro Albisu (Ugarte), Xabin Intxausti (Pitxarrardo), Angel Imaz, ezezaguna, Jesus Goia (San Esteban, Gabiria), Joxe Guerra eta Julen Aranes (Zibur)

irakaskuntza zerbitzuak

Joan Iturralde, 5 Beasain 943 160 120 www.ikaskide.net

TAILERRAK

- ✓ Ikasketa teknikak
- ✓ Barreterapia
- ✓ Erlajazio teknikak
- ✓ Nola aurkitu lana
- ✓ Jende aurrean hitzeging
- ✓ Emozioen kontrola

ESKOLA LAGUNTZA

- ✓ Lehen Hezkuntza
- ✓ DBH
- ✓ Batxilergoa
- ✓ Unibertsitate maila
- ✓ Arreta pertsonalizatua
- ✓ Talde txikiak

INGELERA

- ✓ Maila guztiak
- ✓ Haurrak: 6 urtetik aurrera
- ✓ Azterketa ofizialak prestatzeko aukera (KET, PET, First Certificate)

INFORMATIKA

- ✓ Photoshop
- ✓ Power point
- ✓ Web orrien diseinua
- ✓ Office
- ✓ Mekanografia

2006-2007 IKASTURTEA

MATRIKULA IREKIA

SILVIA MIRAS CASASAYAS
ODONTOLOGOA

KOL. Zka: 649 RPS: 144/02

TEL./FAX: 943 88 92 87 SAN INAZIO KALEA, 2 20200 BEASAIN - (GIPUZKOA)

Gabirian
(Alegia auzoan)
Ormaiztegi Iizarren parean

Eraikuntzan

Etxebizitza bikainak:
sofoa, behe solairua, 1. solairua
3 logela, 3 bainugela, terrazak,
lorategi zabala, txokoa, garajea...

Eraikuntza berritzailea eta
lehen mailako materialak

ZUZENKO SALMENTA

ALBITXU
ERAIKUNTZA, PROMOTIOIA, GESTIOIA

Bizitza bakarreko
6 etxebizitza,
binakako blokeetan

INFORMAZIOA ETA SALMENTA:
943 16 10 32 - 652 77 57 41



GARBITASUNA ETA DIZDIRA NAGUSI GAINAZALEAN

GARBIKETA ZERBITZU OROKORRA


BULEGOAK | LANTEGI ETA TAILERRAK | GARAJEAK | ATARIAK
ETXEBIZITZAK | BIZILAGUN KOMUNITATEAK | ETABAR.

Zepai, 5A | 20213 Idiazabal | M 637752571 | T 943187168

reklone

TRUK
moda eta osagaiak
Nafarroa etorbidea, 31
Beasain Gipuzkoa
T 943883545

reklone



Gizonezkoak • Emakumezkoak • Emaztegaia • Bitxiak • Oinetakoak

Migdalala 

Tel. 943 027 363 • Oriamendi, 29 • 20200 Beasain • Gipuzkoa